

EKITEN, Ekintzailetasun lehiaketan sariak banatu ditu MUK

2009/07/09

Arrasate, 2009ko uztailak 9. Ekin, sortu, enplegua eta aberastasuna sortu. Horiek dira Mondragon Unibertsitatearen "Ekiten" programaren ardatzak. Unibertsitateak antolatutako lehiaketa honetan enpleguan eta aberastasunean eragin handiena duten eta bideragarrienak diren ikasleen enpresa proiektuak saritzen dira. Lehiaketa honen xedea da ikasleengan izaera ekintzailearen kultura eta norberak bere enpresa sortu edo negozio berri bat abian jartzeko gauza delako eta hortaz, ingurunea garatzeko gai delako sentipen irmoa sustatzea. Izan ere, unibertsitatea hasiera-hasieratik aritu da ekintzailatza sustatzen hainbat helburu lortzeko xedez. Alde batetik, gizartearen garapen ekonomikoa sustatzea haren bizi-kalitatea, iraunkortasun ekonomikoa, ingurunekoa eta soziokulturala hobetzen duten jarduera, produktu eta prozesu berrien bitartez. Eta bestetik, ikasleen izaera ekintzailea sustatzea enpresa jarduera berriak sortzen dituzten proiektu, produktu edo negozio-lerro berriak abian jarritz. Laburbilduz, enplegua sortzea eta lehiakortasuna hobetzea berrikuntzaren kultura sustatuz, sormena, ekimene bilaketa eta auto-enplegua bultzatuz eta diziplina anitzeko taldeen elkarlana sustatuz.

Aste honetan, Mondragon Unibertsitateak lehen aldiz bi kategoriatan banatu diren sariak erabaki ditu: alde batetik Enpresa Ideia Berrien III. Lehiaketa eta bestetik, Landa-Garapen Iraunkorrerako Ideia eta Proiektuen I. Lehiaketa. Bigarren kategoria horrek landa eremuaren garapenean lagundu dezaketen negozio-ideiak saritzen ditu. Kategoria hori Debagaraia eta Debemen Debagaraiko eta Deba Beheko Landa Garapenerako Elkartekin pasa den apirilak 30ean sinatutako lankidetzaren hitzarmenari esker jaio da. Hori izan da Mondragon Unibertsitateak ingurumenarekin konpromisoa daukaten enpresa eta antolakundeen Gailur elkartearen sartzeko eman duen aurreneko urratsa. Ikasleek gaur jaso dituzte bi kategoriatako bost proiekturik onenei sariak.

Aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko irizpideak hauek izan dira: ideiak landa ingurunean aberastasuna eta enplegua sortzeko duen gaitasuna, proposamenaren bideragarritasuna, lan-taldearen diziplina aniztasuna eta ideien orijinaltasuna eta izaera berritzailea.

Landa eremuaren auto-horniketa

Landa eremuan energiaren auto-horniketa lortzea eta haren eraginkortasuna hobetzea xede zuen proiektuak irabazi du lehiaketa. Proiektua Ingeniaritzako Industria-antolaketa sei ikaslek aurkeztu dute: Ainhoa Arostegi, Ainhoa Eraña, Lorena García, Gorka Ibáñez, Leire Markuerkiaga eta Itxaso Velasco. Proiektuaren xedea da landa eremuetara irtenbide energetiko berriak helaraztea, artean: energiari ez duten zonaldeak hornitu, energiaren eraginkortasuna hobetu, ingurumeneko inpaktua desagerrarazi energia garbiena aldeko apustua eginez eta landa eremuaren izaera naturala gordez, eraikuntza historikoak birgaitu ordezko energiak sor ditzaten, herriaren auto-horniketa osoa lortu eta soberan geratzen den energia saldu. Horrela, irtenbide horiei esker aberastasuna sortzen da landa eremuetan herriei garatzeko aukera handiagoak emanez. Saria 1.000 eurokoa da. Gainera, irabazleek urte bateko beka bat jasoko dute Unibertsitatearen eta Debalaria eta Debemen landa-garapenerako elkartearen eskutik proiektua garatzeko.

Landa eremuetan dauden etxeetarako laguntza zerbitzuak irabazi du lehiaketaren bigarren saria. Zerbitzu honek aukera eskaintzen die landa eremuetan bizi diren eta edozein arrazoiengatik hiriguneetara joateko zailtasunak dituztenei nahi dutena lortzeko. Horretarako, botoi bat sakatu behar dute eta komunikazio zuzenaren bitartez nahi dutena eramaten zaie. Horrela, hirigunean zentral bat sortuko da zerbitzua kontratatzen duten pertsonekin zuzenean konektatuta egongo dena.



Hau da 500 euroko saria jaso duen LADEko (Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza) ikasle taldea: Olatz Azpiazu, Ainara Etxaniz eta Cristina Ceballos.

Itzalkin adimentsua eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko baliabidea

Enpresa Ideia Berrien Lehiaketan hiru ideia hauek ere saria jaso dute gaur: eguzki-izpien bila auto-biratzten den itzalkin adimentsua, ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura eta merkataritza txikiari zuzendutako marketin enpresa.

Proiektu irabazlea Goi Mailako Eskola Politeknikoko Ingeniaritzako Industria-Antolaketako sei ikasleek aurkeztu dute: eguzki-izpiak uneoro kontrolatzen dituen auto-biraketarako sistema bat daramaten itzalkin adimentsuak. Sistema horri esker, ez dago itzalkina eskuz mugitu beharrik eguzki-izpien norabidea aldatzen den bakoitzean. Taldea Ingeniaritzako Industria-Antolaketako ikasle hauek osatzen dute: Nora Aizpitarte, Joseba Apaolaza, Urtzi Igartua, Miren Lopetegui, Eider Oiarbide eta Leire Zubia. Taldeak 1.000 euroko saria irabazteaz gain, proiektua garatzeko urte bateko beka bat ere jasoko du.

Ibilgailu elektrikoak puntu ezberdinetan jartzen diren kargarako baliabideen bitartez kargatzeko azpiegitura bat ezartzeko negozioa. Proiektu hau oinarrituta dago etorkizunean ibilgailu elektrikoek merkatuan izango duten presentzia garrantzitsuan. Enpresak, hasiera batean, hiru negozio-unitate izango ditu: ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzeko ikerketa, kargarako zutabeen merkaturatzea eta instalazioa, eta azkenik, kontsumo elektrikoaren kobrantzaren kudeaketa. Taldea Ingeniaritzako Industria-Antolaketako ikasle hauek osatzen dute: Ane Azkoitia, Iratxe Irizar, Aritz Jayo, Jagoba Lazkano, Jesús Mari Zabalegi eta Egoitz Ziganda.

Azkenik, hirugarren saria LADEko hiru ikaslek (Imanol Cordovilla, Igor Gómez eta Ion Saez) diseinatu duten ekimen honek jaso du: merkataritza txikiari zuzendutako marketin zerbitzuak eskaintzen dizkien enpresa. Izan ere, merkataritza txikiak – janari-dendak, arropa dendak, optikak, tabernak, jatetxe txikiak,...- ideia sortzaile eta merke gutxi izan ohi ditu haien bezeroen gogobetetzea hobetzeko. Bi ekimen hauek 500 euroko saria jaso dute.